

Asteakoak gizartea



Apirilaren 24an, 600 pertsona bildu ziren Maeztun parke eolikoaren aurka. MENDIAK ASKE

15.000 alegazio eolikoaren kontra

Astelehen honetan, Kuartangoko Udaleko osoko bilkura Arkamuko proiektuaren aurka agertu da. Aguraingo Udalak, berriz, ez du iturrietako Mendieta proiektuaren kontrako mozioa onartu.

ERREDAKZIOA

Dagoeneko 15.000 alegazio bildu ditu Mendiak Aske plataformak herrialdean eraikitzeko asmoa duten zentral eolikoaren kontra. Ostegun honetan, alegazio horiek entregatu ditu Espainiako Gobernuak Gasteizko Olagibel kalean duen Ordezkariordeztan.

Arlo instituzionalean, berriz, hogeita hamar administrazio batzar inguru agertu dira proiektu horien aurka, eta Kuartangoko Udalaren osoko bilkurak ere Arkamuko egitasmoa arbuiaitu du.

Arabako Mendiak Aske plataformak azken egunotan argitaratu duen zerrendaren arabera, Iruraiz-Gaunako administrazio duen zentral eolikoaren kontra. Ostegun honetan, alegazio horiek entregatu ditu Espainiako Gobernuak Gasteizko Olagibel kalean duen Ordezkariordeztan.

Kuartangoko Udalaren kasuan, aste honetan osoko bilkurak adierazpen instituzional bat onartu du, azalduz Arkamuko parke eolikoak ingurumenean eta paisaian duen "eragin handiak eta biodibertsitatearen galerak" ez dutela konpentsatzen energia berriztagarriaren ekoizpena. Osoko bilkurak energia garbiak eta berriztagarriak erabiltzearen alde dagoela nabarmendu nahi izan du, baina "ingurunearekin eta mendien erabilera onarekin" bateragarriak izan behar dutela adierazi du, "betiere ahalik eta ingurumen inpaktu txikiena lortzeko".

Aguraingo osoko bilkuraren erabakia bestelakoa izan da, udalerriko herritarren zein kontzejuen artean parke eolikoaren kontrako iritzia oso hedatua dagoen arren. Astelehen honetan, Aguraingo udal gobernuak (EAJ) hainbat alegazio planteatu ditu bere udalerrian kokatuko diren hiru aerospagailuen aurka, baina ez da proposatutako parke eolikoaren kontra agertu.

ERROTARI KALEA, 4-8 PABILIOIA
LAUDIOKO INDUSTRIALDEA
LAUDIO - ARABA -


AIARALDEA EKINTZEN

FAKTORIA irekitzera goaz!

- #BizitzekoFaktoria
- #AmestekoFaktoria
- #ElkartzekoFaktoria
- #KulturarakoFaktoria
- #FeminismoarakoFaktoria
- #KomunikazioarakoFaktoria
- #HezikuntzarakoFaktoria
- #EntzutekoFaktoria
- #EuskararenFaktoria
- #DenakUrdaitzekoFaktoria

Maiatzak

15



750 METRO KARRATU · ANARI · IDEIEN LABORATEGIAK · RUPER ORDORIKA · EKONOMATUA · KAI NAKAI · POESIA ZAURIEN UKENDU · IDEIEN LABORATEGIAK · HABI ETA ETXEKALDE · UDAKO BUSKAL UNIBERTSITATEA · KANTINA · PORROTX ETA YOOGURINHA BOROVA · ENTSEGUAK · HEZKUNTZA CHILL-MAFIA · KULTURA · EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEA · MALEN ATXA · SORKUNTZA BEKAK ESTI ETA MIKEL MARKEZ · BULEGO · JOLASAK · KOMPOST · TERRAZA · BAZKIDEAK · ERA BATERA ERAUT ELORRIETA · FEMINISMOA · ELKAR EZAGÜTU GENUEN EGUNA · KONSPIRAZIOAK · ETYEBIZITZA KOMUNITARIOAK · IBIL BEDI · BLIKADURA · MARIA RIVERO & TRIBU BANDA · AIARALDEA KOMUNIKABIDEA · JOLAS-PARKEA · TAILERRAK · GEOTERMIA · MAHAI-INGURUAK · UDALDEAK ENERGIA BERRIZTAGARRIAK · ESKOLAZ KANPORA EKINTZAK · GOLASALDIAK · OLATUKOOP IKUS-ENTZUNEZKO ESTUDIOA · PLAZA IREKIA · SUKALDEA · COWORKING GUNEA · GOIKO PLAZA...

www.faktoria.eus